

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Hiri Hondakinen Kudeaketa Zerbitzuaren 2013ko Finantzazioa arautzen duen Ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea.

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2012eko urriaren 25n egindako bilkuran, Hiri Hondakinen Kudeaketa Zerbitzuaren 2013ko Finantzazioa arautzen duen Ordenantzaren aldaketa onetsi zuen hasiera batez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, onestutako aldaketak jendaurrean egon beharko du hogeita hamar lanegunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesatutako pertsonak espedientea aztertu ahal izan dezaten eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkezteko aukera izan dezaten.

Jendaurrean egoteko aldia iraganik alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onetsita geldituko da, eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruña, 2012eko urriaren 25an. Mankomunitateburua, José Muñoz Arias.